

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua lau zatitan banatua izan da, lau baliabidetan hain zuzen: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Guzti honek balio-proposamena garatzen, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izaten eta, behin guzti hau lortuta, diru-sarrerak sortzen lagunduko digu.



Baliabide fisikoak, izenak dioen bezala, elementu fisikoak izango dira, gure proiektua aurrera eramaten lagunduko digutenak. Gure kasuan, lehenik eta behin bulego bat beharko dugu, lana egiteaz gain, hornitzaileekin bildu ahal izateko. Bertan, altzariak ere beharko ditugu, mahaia eta aulkiak hain zuzen. Azkenik, lana egiten lagunduko diguten produktuak (TRESNAK, MATERIALAK...) beharko ditugu ordenagailuak, inprimagailua eta bezero eta enprekin kontaktatzen lagunduko digun mugikor bat.

Baliabide intelektualen atalean, softwarea oso pieza garrantzitsua izango da, proiektuaren muina baita. Softwarea, ordenagailu bati zer egin behar duen adierazten dioten jarraibide edo programen multzoa da eta guk programarekin lan egingo dugunez, ezinbestekoa da software on bat edukitzea, bestela gure proiektuak ez zuen aurrera egingo.

Giza baliabideei dagokionez, bakoitzak bere gaitasunak ditu eta gaitasunen arabera rol desberdinak banatu ditugu:

- **Olgak** jantzigintza ikasi zuen eta ondorioz, sormena lantzeko gaitasuna asko garatu zuen. Daukan jakintzak, arropen konbinazioak egiteko orduan, erraztasun handiak eskaintzen dizkigu, modara dauden tendentziak jarraitzen baititu, gure bezeroei konbinazio modernoak eskaintzeko aukera zabalduz. Sormena ere badu eta beraz, etorkizuneko tendentzia aurreikusteko gaitasuna baita.
- Komertzial eta harreman publikoko sektorean, **Maren** zentratuko da. Marketing eta harreman publikoak ikasi zituen eta ikasketa hauei esker sektore honetan du gaitasuna. Betidanik izan du interesa bi gai hauetan eta orduan abantailatzat ikusten dugu ondo ematen zaion horretara zuzentzea.

- **Xuban** informatikoa da, gaztetatik errestasunak eduki ditu informatikaren esparruan. Lan txikiak egiten zituen enpresentzako, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu ondoren Informatikako Erdi-mailako ikasketetan sartu zen. Ondoren Goi-mailako ikasketak bukatu zituen, eta enpresa bateko zibersegurtasun sektorean egiten zuen lana. Orain gure enpresan bere jakituria guztia ematen saiatuko da.
- **Irantzuk** EAZ (Administrazio eta Enpresa Zuzendaritza) ikasi ondoren, zuzendari estrategikoan zentratuko da. Gure enpresaren zuzendaria izango da, gure ideiak hobeto antolatzeko eta bakarkako lana bideratzen lagunduko digu. Hau lortzeko, enpresa askotan praktikan egon da, oraingo postura arte iritsi arte.

Finantza-baliabideak, lortu ahal izateko, gure aurrezkiak batu egingo ditugu eta daukagun diruaren arabera bankuari mailegu kantitate bat edo bestea eskatuko dizkiogu. Gure ideia patentatzea ezinbestekoa ikusten dugu, ideia inork ez lapurtzeko.